

## **DIRU-SARRERAK:**

### **• Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure boligrafoak fabrikatzeko behar diren kostuak ez dira oso handiak izango, boligrafo guztiak berrerabilitako elementuekin egingo ditugunez, kostuak ez dira altuak izango. Diru sarrera nagusia bezeroetatik aterako ditugu, baina publizitatetik ere aterako dugu dirua. Salmentetatik ateratako dirua askoz handiagoa izango da publizitatetik ateratakoa baino.

Bestetik gure prezioak finkoak izango dira; alegia, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta egongo direla. Prezio finkoen barnealdean, zerrendako prezioa izango da; produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoari esaten zaio. Esaterako, gure boligrafoen katalogoan boligrafo batek balio duena.

Ondoren, publizitate gehiena interneten jarriko dugu. Alegia, webgune jakin batzuetan gure produktuaren iragarkia jarriko dugu. Bestela, lehiaketa bat abiarazi dezakegu sare sozialetan, dendako gerentearen profiletik boligrafoen argazkiak bere produktuekin igotzean datzana. Produktu horretan etiketatzen den lehen pertsonak irabazi egiten du.